

IES URIBE-KOSTA BHI

MUSIKA

2018-19 ikasturteko programazio didaktikoa

ikastetxea:	IES URIBEKOSTA BHI	kodea:	
etapa:	DBH	zikloa/maila:	2
arloan/irakasgaia:	MUSIKA		
osatutako arloak/irakasgaiak	TIC, HIZKUNTZA ETA LITERATURA, FILOSOFIA, GEOGRAFIA eta HISTORIA		
diziplina barruko oinarrizko konpetentzia elkartuak	Komunikaziorako konpetentzia Arterako konpetentzia Teknologiarako konpetentzia Matematikarako konpetentzia Konpetentzia sozial eta zibikoa Zientziarako konpetentzia Konpetentzia motorra		
irakasleak:	ZUBEROA BILBAO	ikasturtea:	2018/19

Zeharkako konpetentziak / *Competencias transversales*:

1. Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia
3. Elkarbizitzarako konpetentzia.
4. Ekimen eta espiritu ekintzailerako konpetentzia
5. Izaten ikasteko konpetentzia

HELBURUAK	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK
<p>1. Musikak norberaren ideien, sentimenduen eta bizipenen berri emateko dituen aukera ugarietz jabetzea, eta hainbat motatako musika-adierazpenak errespetatzea eta balioestea, artea eta kultura ezagutzeko eta goatzeko aukera ematen duten aldetik.</p> <p>2. Musikaren eta beste arte-hizkuntza, ezaguera, ikus-entzunezko baliabide eta hedabide batzuen arteko loturak zein diren jakitea, eta horiek guztiak artelan konplexuak ekoizteko beharrezkoak diren sormen, espresio eta komunikazio bidetzat erabiltzea.</p> <p>3. Estilo, genero eta hainbat joeratako musika-lanetan erabiltzen diren elementu</p>	<p>1. Musika-lan edo -parte laburrak entzun eta musikaren oinarrizko elementuak identifikatzeko gai izatea,</p> <ul style="list-style-type: none">• Soinu-parametroen diferentziak eta kontrasteak bereizten ditu proposatzen zaizkion entzunaldietan• Obren musika-alderdiak azaltzen ditu bere iritzien argudioetan• Partiturak eta beste baliabide grafiko batzuk erabiltzen ditu entzute-jardunari laguntzeko• Teknologia berriak erabiltzen ditu entzuteko proposatu diren obren zenbait alderdi ikertzeko.• Arretaz eta modu kontzientean entzuten ditu musika-adibideak.• Musika entzutea balioesten du, jakintzarako eta gozamenerako iturria den aldetik. <p>2. Musika sortu eta interpretatzeko erabiltzea arte-hizkuntzek eta teknologia berriek ematen dituzten aukera eta baliabideak.</p> <ul style="list-style-type: none">• Teknologiek ematen dituzten aukerak baliatzen ditu bere musika-adierazpena aberasteko.• Musika sortu eta interpretatzean, probak egiten ditu beste arte-hizkuntza batzuekin.

tekniko eta espresiboak aztertzea eta identifikatzea, eta hori guztia ezaguera-bide eta gozamen-iturritzat hartzea, musika ondo ulertzeko, erreferente estetiko berriak eskuratzeko eta mota askotako errealitate eta ekoizpen artistikoen bidez nork bere burua aberasteko.

4. Musikaren oinarrizko teknikak, baliabideak eta konbentzioak ezagutzea, musika-lanak autonomiaz eta trebetasunez aztertzea, interpretatzea eta ekoiztea, eta horretan, norberaren trebetasun intelektualez, ekimenaz eta irudimenaz baliatzea, sormen eta espresibide indibidual nahiz kolektiboak lantzeko eta aberasteko.

5. Norberak zenbait musika-lan sortzea, horretan emandako denboran gozatzea eta musika pertsona gisa hazteko, emozio, sentimendu, bizipen eta ideien berri emateko eta komunikazio-gaitasuna, pentsamendu kritikoa eta autokonfidantza garatzeko bidetzat hartzea.

6. Zenbait testuingurutan egitekoak diren musika-proiektu musikaletan parte hartzea, eta talde barruan zenbait funtzio betetzea, horrela plangintzak egitearekin, koordinazioarekin eta talde-lana ebaluatzearekin lotutako trebetasunak lantzeko.

7. Musikaren eta soinuaren erabilerak eta funtzioak kritikoki aztertzea, eta horiek norberaren nahiz besteen esperientzietan identifikatzea, musikak gure inguruko gizartean eta kulturaren zer-nolako funtzioa duen ulertzeko.

8. Musika herri eta kulturen ondare eta identitatearen parte dela aintzat hartzea, eta, ondare oparo hori babestea eta sorberritzea helburu hartuta, eta elkartrukeak dakarren aberastasunaz jabetuta, kulturen arteko elkarriketak eta herrien konpartitzen dituzten esperientzia artistikoen egindako ekarpen ugarietako interesa izatea

- Interpretazio-teknika askotarikoak probatzen ditu.

3. Musikan erabili ohi diren teknika eta baliabide ugariak identifikatzeko gai izatea, eta komunikazio-bide eta espresibide artistikotzat hartzea

- Musika-adierazpen jakinetako teknika eta baliabide berezkoak identifikatzen ditu.
- Musika-jardueretako interesa ageri du eta gozatu egiten du jarduera horiekin.
- Hitzez eta idatziz adierazten ditu musika-lanek sorrarazten dizkioten emozioak eta sentimenduak.
- Musika balioesten du, ideiak, sentimenduak eta bizipenak adierazteko modua den aldetik.

4. Musika-lanak aztertzeke eta interpretatzeko erabiltzea musika-hizkuntzaz eta -baliabideez ikasitakoa, eta horretan, zenbait egoeratan sortutako arazoei sormenez erantzuteko gai izatea.

- Hizkuntza musikalaren oinarrizko ezaugarriak ezagutzen ditu eta badaki nola erabili kantatzeko eta musika-tresnak jotzeko.
- Egoki erabiltzen du musika-kodea.
- Behar bezala antolatzen ditu musika-laneko urratsak.
- Autonomiaz eta irudimenez jokatzeko du musika-hizkuntzako baliabideak erabiltzean.
- Musika-lanak egitean, soinuak ikertzen ditu ahotsarekin eta musika-tresnekin.

5. Gai izatea musika-lan bat entzun eta, alde aurretik emandako irizpideak aintzat hartuta, entzun duen horretan ageri diren ideia nagusiak identifikatzeko.

- Adi entzuten ditu soinu-mezuak, haiek entzuteko ezarri diren jarraibideak beteta.
- Zer obra mota entzuten duen bereizten du.
- Entzundako obren azalpen-eskemak egiten ditu.
- Entzundako obren gaineko iritzia ematen du, argumentu koherenteak erabiliz.
- Besteren iritzia entzutean, elkarriketarako jarrera irekia izaten du.

6. Garai, estilo, genero eta joeretako musika-lanen ezaugarriak identifikatzeko gai izatea, eta horretan, musika-lan horiek ulertzeko, ea entzuketateknikak eta -metodoak erabiltzea.

- Entzuteko eman zaizkion jarraibideak bete eta musika-obren bereizgarriak ezagutzen ditu.
- Konposizio moduen eta garaien arteko loturak egiten ditu.
- Lexiko egokia eta kontzeptu musikalak erabiltzen ditu argudioak osatzean.

7. Egiturarekin eta musika-tresnen nahiz ahotsen erabilerarekin lotutako irizpideak aintzat hartuta, musika-lan bat zer estilo eta garaikoa den jakiteko gai izatea.

- Lotu egiten ditu entzundako obra eta obraren garaiko ezaugarriak.
- Konposizio-elementuei erreparatuta ezagutzen du obren estiloa.
- Egitura harmonikoaren instrumentuak eta ahotsak ezagutzen ditu.
- Interpretazio moduak bereizten ditu, garaiaren arabera.

	<ul style="list-style-type: none">• Obren ideia musikalak adierazten eta azaltzen ditu, lexiko musikala baliatuta. <p>8. Modu kooperatiboan parte hartzea musika-jardueretan, eta egindako lana ebaluatzeko gai izatea.</p> <ul style="list-style-type: none">• Taldeko musika-lanen plangintza egiten laguntzen du.• Ardurak onartzen ditu eta taldearekin koordinatzen du bere lan-erritmoa.• Aldaketetara egokitzeko gaitasuna duela ageri du.• Jarduera artistikoko gainerako kideei laguntzen die, haiekin elkartasunez jokatu.• Ekarpak sortzaileak egiten ditu, talde-lana hobetzen dutenak.• Talde-lanaren garrantzia balioesten du. <p>9. Musikaren funtzio eta erabileren eta testuinguru tenporal eta kulturalen artean zer-nolako loturak dauden modu intuitibo eta kritikoa azaltzeko gai izatea.</p> <ul style="list-style-type: none">• Musikaren funtzio sozialak ezagutzen ditu. Jasotzen dituen mezu musikalen zentzua interpretatzen du.• Sorrerako testuinguruan bilatzen du musika-lanen esanahia.• Soinu-kontaminazioa duten giroak hautematen ditu eta kontaminazio hori arintzeko ideiak proposatzen ditu.• Adi entzuten ditu musika askotarikoak <p>10. Zenbait motatako musika-adierazpenen berri izatea, eta Euskal Herriko eta beste herri batzuetako ondarearen partetzat hartzea adierazpenok.</p> <ul style="list-style-type: none">• Euskal kultura-ondarea eta beste kultura batzuetakoa ezagutzeko interesa ageri du.• Adi entzuten ditu musika-adierazpenak, eta haien testuinguruan kokatzen ditu.• Euskal Herriko eta beste herri batzuetako musika-lanak interpretatzen ditu.• Euskal Herriko eta beste herri batzuetako dantza- eta abesti-errepertorio oinarritzko bat ezagutzen du.• Musikaren garrantzia balioesten du, herrien ondarea eratzen duen osagaia den aldetik..
--	---

DUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

Ikasturteko hiru ebaluazioetan hurrengo eduki multzoak landuko dira:

- 1. Eduki komunak** (Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarritzko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak)
- 2. Musika entzutea eta ulertzea** (Entzunaldiak lantzea: testurak, generoak, formak, musikaren oinarritzko elementuak eta soinuaren ezaugarriak bereiztea, isiltasuna balioestea,...)
- 3. Musika interpretatzea eta sortzea** (ahotsa, musika-tresnak eta gorputza erabili, abestu, interpretatu...)
- 4. Testuinguru eta Erreferente musikalak** (musika-obren testuingurua aztertzea, zentzu/begirada kritikoa zabaltzea ...)

1. Ebaluaketa	2. Ebaluaketa	3. Ebaluaketa
1. Sarrera: Forma, Genero eta testura 2. Prehistoria eta Antzinaroa) 3. Erdi Aroa 12h	4. Berpizkundera 5. Barrokoa 6. Klasizismoa 10h	7. Erromantizismoa 8. XX. mendeko musika 9. Gaur eguneko musika 12h
Entzunaldiak: 2h	Entzunaldiak 2h	Entzunaldiak 2h
Praktika musikala 8h	Praktika musikala 8h	Praktika musikala 8h
Bakarkako lana: Antzineko musika tresnak 2h	Bakarkako lana: Musikariak 4h	Bakarkako lana: Aiton-amonen musika 2h
	ARAZO PROBLEMA:	ARAZO PROBLEMA

Teknologia berriak erabiliko dira edukiak sakontzeko informazio iturri gisa, musika entzuteko, ikerketa lanak eta aurkezpen lanak adierazteko.

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGIA:

Ikasturtea hiru ebaluaziotan banatuko da eta bakoitzean eduki multzoak landuko dira. Honetarako ezinbestekoa da komunak diren edukiak kontuan hartzea bai banaka zein taldeka eta errespetatzea ikasleen jarrera Informazioa identifikatzen, lortzen, gordetzen eta berreskuratzen/ nola egiten duten Informazio-iturrien egokitasuna/ Informazioa ulertzea (alderatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburtzea) eta adieraztea (deskribatzea, definitzea, laburtzea, azalpenak ematea, etab...). Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.). Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea. Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea. Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea. Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea. Lortutako emaitzaren berri ematea. Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea). Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea. Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea. Gatazkak kudeatzea. Norberaren gorputza erregulatzea. Norberaren emozioak erregulatzea. Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea. Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala). Norberaren jokabide morala erregulatzea. Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea

Hurrengo printzipio metodologikoetan oinarrituko gara: Konstruktibismoan, Irakaskuntza esanguratsua, Ikasteko autonomia eta ikasten ikasteko printzipioan, Aniztasun eta indibidualizazio printzipioetan eta Sozializazio printzipioan. Horretarako estrategia ezberdinak erabiliko ditugu: Erabiliko den metodologia bateratzea, kooperatiboa eta aktiboa izango da; ikaslea partaide delarik horretarako lanetan ikertu, aztertu, erreflexionatu eta iritziak eman behar izango dituzte.

Ikasten denaren ulermena potentziatuko da, horrela gertatzen baita irakaskuntza esanguratsua. Kontzeptu berriak azaltzen direnean aurre-ebaluazio bat egingo zaie galderen bitartez, beraien partaidetza taldean inportantea delarik. Landuko diren edukiak praktikan

oinarrituko dira, Informazioaren eta komunikazioaren ikus-entzunezko teknologiak erabiliko dira auto-ikaskuntza, komunikazio, ezagutza, laguntza eta gehiago jakiteko bide moduan.

Ikaslegoaren aniztasuna kontutan hartuko da.

Musika gelan erabiliko diren estrategiak: Musika-esperientziak bizi ahal izatea musika entzumena lantzen denean, musika interpretatzen denean, gorputz-adierazpenaren inprobisazio eta sorkuntzaren bitartez. Horretarako, Pertzepzio gaitasunak ere entzumen aktiboaren eta ulermen memoriaren bitartez landuko dira . Adierazpen gaitasunak berriz, ahotsa, dantza eta mugimendua, eta instrumentuen abileziaren bitartez landuko dira. Hau guztia interpretazioa eta sormenaren laguntzaz aurrera eramango delarik.

ESPAZIOAREN ANTOLAKETA:

Musika gelan; gure lana bertan gertatuko da. Arbela digitala eta irakaslearen ordenagailua

TALDEKATZEA: Ezberdinak izango dira lantzen diren edukien, ezaugarrien eta ikasleen ikasteko erritmoen arabera. Talde handian: Gaien aurkezpenak egiteko, entzunaldiak eta bideoak lantzeko, azalpen orokorrak egiteko. Lan talde txikietan: launaka, binaka edo banakako lanak egiteko. Lan konketuak lantzeko, baita hausnarketa lanak egiteko ere.

BALIABIDEAK:

Baliabide analogikoak: Testu liburua ez da erabiltzen. Irakasleak apunteak eta fotokopiak prestatuko ditu. Horretarako argialetxe desberdinen liburuetan oinarrituko da, baita internetetik pilatutako informazioan ere. Informazio iturri ezberdinak erabiliko direlarik. Bestaldetik, partiturak, artikulua, mapa kontzeptualak, konparazio-ataulak, denbora lerroak, entzunaldiak eta bideoak erabiliko dira.

Baliabide digitalak Institutoko IKT baliabideak: netbookak, arbela digitala, ... CDak. Honetan erabiliko diren baliabideak GoogleAppsek eskeinitako tresnak: e-maila, musika sitea, drive, presentazioak (slideshare, ppt, popplet,...), calendar, glogsterra, classrooma, ... izango dira

OHARRA: Bestalde, ikastetxeko proiektuekin bat eginez, mintegiko irakasleok eskola orduetan eta egokia ikusten duen uneetan, honako ekimenen alde joko dugula adierazi nahi dugu:

- **Normalizazioa:** Euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak eta jarduerak landuko ditugu, euskararen erabilera sustatzen, zaintzen, indartzen eta erabiltzen.
- **Irakurketa Plana:** Arloko testu espezifikokoak ulertzeko jarduerak landuko dira, ikaskuntza-jardunaren oinarritzko edukia izan dadin.
- **HTB:** Gure hobekuntza planean eta Hizkuntza proiektuan adierazten den bezala, irakurmena lantzeko berenberegiko atazak egingo dira. Halaber, idatzizko testuak zuzentzeko mintegi guztien artean adostutako **txantiloia** erabiliko da.
- **Hezkidetzeta (Aniztasuna):** Sexuen arteko eskubide berdintasuna, edozein eratako bereizkeriaren aurreko gaitzespena eta kultura guztien begirunea modu eraginkorrean gauzatu. Guztien partaidetza positiboa sustatu.
- **Bizikasi:** "Arloko ekintzetan, hezkuntza komunitateko kide guztien arteko harreman positiboak eta elkar bizitza osasungarria eraikitzen lagunduko da."
- **Agenda 21:** Kontsumoaren arduratsua bultzatu eta ikastetxe ingurunearen alde lan egiteko konpromesua baloratuko da.
- **IKT:** Gure ikasleek bere garapenerako behar dituzten gaitasun digitalak eskuratzeko informazio bilatu, lortu, prozesatu eta komunikatu beharko dute (informazio hori jakintza bilakatzen).

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoa...]</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p>
<p><u>EBALUAZIO-TRESNAK</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Idatzizko frogak egingo dira edukien bereganaketa aztertzeko; ulermen maila; ausnarketa eta iritzi kritikoa emateko gaitasuna; ortografia eta kaligrafia; hiztegia. • Ahozko frogak egingo dira edukien bereganaketa aztertzeko eta ahozko adierazpena aztertzeko. Besteen aurrean hitz egiteko sortutako urduritasuna gainditzeko. • Gelan edo etxean egindako bakarkako lanak • Talde lanak • Praktika musikala • Ikaslearen fitxen karpeta egindako lan maila, aurkezpen eta garbitasuna aztertzeko. • Mapa kontzeptualak, eskemak eta laburpenak edukien ulermena aztertzeko eta ikasketa tekniken erabilpena • Jarrera ikaslearen interesa aztertzeko. 	<p><u>KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK</u></p> <p>Idatzizko eta ahozko frogetan baloratuko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Kontzeptuen argitasuna eta zehaztasuna. <input type="checkbox"/> Azalpenen ordena eta egitura <input type="checkbox"/> Ahozko adierazpena <input type="checkbox"/> Hizkuntza egokiaren erabilpena <input type="checkbox"/> Eskema, irudien eta beste baliabide grafikoaren erabilpena <input type="checkbox"/> Aurkezpenaren garbitasun idazkietan <p>Gutxienez froga bat egingo da ebaluaketa bakoitzean.</p> <p>Lanetan baloratuko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Epeak errespetatzea (berandu aurkeztutakoak ez dira baloratuko) <input type="checkbox"/> Hizkuntza musikalaren erabilpena, irudi, grafiko etab... <input type="checkbox"/> Ariketak zuzenduta egotea <input type="checkbox"/> Landutako guztia karpeta agertzea <input type="checkbox"/> Ortografia egokia erabiltzea <input type="checkbox"/> Praktiken orriak beteta agertzea <input type="checkbox"/> Aurkezpena garbia izatea <p>Lanak eta karpeta maiz jaso eta zuzenduko dira.</p> <p>Praktika musikalean baloratuko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Interesa eta saiatzea <input type="checkbox"/> Interpretazioaren emaitza <p>Egunero behatuko da praktika musikalan egindako aurrerapenak</p> <p>Jarreran baloratuko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Gelako lana <input type="checkbox"/> Materiala egunero ekartzea <input type="checkbox"/> Parte hartzea eta interesa erakustea <input type="checkbox"/> Etxeko lanak egitea <input type="checkbox"/> Gelako arauak errespetatzea <input type="checkbox"/> Gelako martxa ez eragozte <input type="checkbox"/> Materiala zaintzea <input type="checkbox"/> Puntueltasuna <input type="checkbox"/> Errespetuz hitz egitea gelakideei eta irakasleei <input type="checkbox"/> Hobetzeko ahaleginak egitea <p>Egunero jasoko dira jarrerari buruzko notak</p>

	<p><i>Ebaluaketa gainditzeko atal bakoitza gaindituta izan behar da.</i></p> <p>KALIFIKAZIOEN EHUNEKO PORTZENTAIA :</p> <table data-bbox="798 414 1385 548"><tr><td>FROGAK (teoria eta entzunaldiak)</td><td>% 40</td></tr><tr><td>LANAK</td><td>% 20</td></tr><tr><td>PRAKTIKA MUSIKALA</td><td>% 20</td></tr><tr><td>JARRERA</td><td>% 20</td></tr></table>	FROGAK (teoria eta entzunaldiak)	% 40	LANAK	% 20	PRAKTIKA MUSIKALA	% 20	JARRERA	% 20
FROGAK (teoria eta entzunaldiak)	% 40								
LANAK	% 20								
PRAKTIKA MUSIKALA	% 20								
JARRERA	% 20								
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupezio-sistema...].</p>									
<p>→ Ebaluazio bat gainditzeko 5 atara beharko da. (atal guztiak gaindituak egon behar dute)</p> <p>→ Ikasgaien berreskurapena: atalen bat ondo finkatu gabe gelditu bada, jarduera batzuen bidez sendotuko da.</p> <p>→ Ebaluazio berreskurapena: Hurrengo ebaluazioa gainditzen badu gaindituko du, jarraia baita. Hala ere, 1. ebaluaketan eskatutako lanak egingabe badaude edo konpondu gabe, derrigortuta dago lan hoiak entregatzera. Hau da 1.a gainditu ez badu eta ariketak egingabe badaude derrigorrez eginda aurkeztu behar izango ditu 2. ebaluazioan zehar. Gauza bera 2. eta 3. ebaluazioekin.</p> <p>→ Ikasturte osoaren berreskurapena: Ekainean ezohiko ebaluazioan azterketa baten bidez egingo da.</p> <p>→ Gainditu gabe geratzen bada eta alde egiten badu edota 3.DBHra pasatzen bada: Ikasturtean zehar eskatu diren lanak txosten batean agertuko dira. Lana, PIREaren lana da. Lan hau ikasturtearen amaieran aurkezten zaio ikasleari, udan prestatzeko eta hurrengo ikasturtearen hasieran, ikasleak mintegiak adostutako datan aurkeztu behar du. Lan honen notaren pisua %50 da. Bigarren zatia azterketa da eta bere pisua ere %50 da.</p>									

OHARRAK / OBSERVACIONES

--